

Nori dagokion

Unibertsitate diploma dagokie ofiziolokoei, lanean ari edo ez, laborantza agroekologikora iragaitean parte hartzen duten guzietan (laborariak, laborantza ganbaretan, garapen elkartetan, herriko etxetan, herri elkargoetan, departamenduetan, eskualdeetan, banketxeetan, ikastetxeetan diren pertsoneri

Formakuntzara sarbidea

Hastapeneko formakuntzan eta formakuntza jarraikian

- Unibertsitate diploma idekia da baxotik lekora gutinenez 2 urteetako ageria egiaztatzen duten presuna guzietan
- Ageri hori ez dutenek formakuntzarako sarbidea ukan dezakete batzorde pedagogikoaren ganik, hunekin mintzatu ondoan

Formakuntza nola eta nun iraganen den

- **Hautagaigoen jakinaraztea** : urtarrilaren 1tik martxoaren 15ra
- **Formakuntza guneak** : denbora heren bat Angelun Montauryko unibertsitatean, bertze bi herenak Euskal-Herri barnealdean
- **Maiztasuna** : 20 astez (maiatzetik maiatzera), astero bizpahiru erakaskuntza egun
- **Erakaskuntza orenak** : 350 + **Aplikazio Proiektua** : 300

Harremanak

Collège Sciences et Technologies pour l'Énergie et l'Environnement (STEE)

1 Allée du Parc de Montaury
Bâtiment1 - 64600 ANGLET
Tél : +33 (0)5 59 57 44 01

ARDURADUNAK

Fabienne Feutry & Noëlle Bru
fabienne.feutry@univ-pau.fr

ADMINISTRATIBO KONTAKTUAK

Argitasunak, kandidaturak :
Scolarité Masters

scolarite.sciences-anglet@univ-pau.fr - 05 59 57 44 01

Prezioak, aintzinkondurak eta finantzamenduak :

Service commun de la Formation Continue
accueil.forco@univ-pau.fr - 05 59 40 78 88

WEB GUNEA

<http://formation.univ-pau.fr/du-agroecologie>

Unibertsitate diploma

Laborantza agroekologikora iragaitea



Conception : Direction de la communication - Impression : Centre de reprographie - UPPA - Décembre 2018

Helburua

Laborantza agroekologikora iragaiteko lagungarri izanen diren jakitatea, gogoetagai eta tresnen biltzea

Azken denbora hauetan, kasik denak agroekologiaz mintzo dira. Hain zuzen formakuntza hunen xedea da ekartzea eskualdeetako lur jakintza eta ekologiari lotua den erakaskuntza berriari buruzko ikuspegi orokor bat, bainan aldi berean arlo asko hunkiz (ekonomikoa, kulturala, soziala...)

Idekitzen dituen gogoetabideetatik haratago, formakuntza hunek obratze alde bat ere badauka. Laborantzako agroekologikora iragaite egitasmoa eraikitzen eta gauzatzen, ekoizpen modu batzuetan ari direnak lagunduko ditu. Bai eta ere hortaratzeko beste batzu mail ezberdinetan (garapena, formakuntza, finantza arloak) lagundu behar dituzten presunak

Formakuntzak ekar dezakena

- Irakaskuntzaren denbora erdia segurtatuko dute sail berezitueta lanean ari direnen mintzalariek
- Laborantza agroekologikoaren sailean lanean ari diren irakasle eta ikerlari ikastetxe eta unibertsitate ezberdinetatik parte hartuko dute
- Irakaskuntzak fagoratuko ditu trukadak, esperientzia joan-etorriak (mahain-inguruak, bisitak...), irakasgaien arteko kurutzamenduak eta lurralde ezberdinekiko loturak
- Aplikazio proiektuari esker bildu gaitasunen gaineko estimatzea
- Mugaz bertzaldekoei ere idekia den formakuntza bat

Aplikazio proiektua (300 h)

Aplikazio proiektua kokatu behar da laborantza ekologikora iragaiteko bidean. Formakuntzaren atal nagusi horrek :

- Hautagaiari ahalbidetuko dio formakuntzako mintzalarari guziet eman jakitate, bizipen eta tresnen baliatzeko gai izaitea
- Estimatzeko lana errextuko du diploma eskuratzeko unean
- Bakotzak bere aplikazio proiektua ukan dezake, edo bestenaz izaiten ahal da berak lan egiten duen egiturarena

Formakuntzaren egitaraua

6 modulueta (350 h) eta kompetentzien ebaluaketa aplikazio proiektu baten bitartez (300 h)

KONPETENZIAK 3 BLOKETAN

- Laborantza agroekologikora iragaiteko testuinguruak

- Laborantza ekologikora iragaite egitasmoen kudeantza nola hurbildu

- Iragaite ezberdinak agronomia eta ekologia ikuspegietatik

6 IRAKASKUNTZA GAI

- UE 1 - 28h
Munduko laborantza ereduaren sortzetik laborantza agroekologikora iragaite denboretara **

- UE 2 - 56h
Laborantza eta elikadura politikak : eskualde ezberdinekin elkarlana

- UE 3 - 56h
Eskualdeak eta elikadura moldeak

** Geldituko diren harrera lekuen arabera, formakuntza osoa segituko ez duten presuna batzuk ere parte hartu dezakete

- UE 4 - 80h
Laborantza agroekologikora iragaiteari lotuak diren egitasmoen ulertzeko eta arautzeko moldeak

- UE 5 - 65h
Laborantza : izadiarekilako lotura

- UE 6 - 65h
Oinarri teknikoak agroekologia arloan